

SH. E

egungoa

S i n d i k a l H e z i k e t a
I n d i p i d i s

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa 1go seihi-lekoa


LAB
Hezkuntza

ZA
BAI
TZEN

Zbkia

SKH00009

DOKUMENTAZIO
ZENTROA



**2001eko egoera
ekonomikoaren azterketa.
1go seihi-lekoa**




Erredakzioa: **Joselu CERECEDA**
Rafa IZQUIERDO

2001eko urria



2001eko egoera ekonomikoaren azterketa. 1go seihilekoa

1.- Ekonomiaren hozketa ala depresio ziklikoa?	5
2.- EEBBetan gertaturikoa eta krisi ekonomikoa	7
3.- Hamar kontratutatik, bederatzi dira aldi baterakoak	9
4.- Lan merkatuaren egoera	11
- Gizarte Segurantzari enpresariak egiten dioten iruzurra eta langabezi prestazioen murrizketa	12
- Aldikotasun tasak maila berdinetan dirau	13
5.- Emakumea eta soldata bereizkeria 2000 urtean	15



1. Ekonomiaren hozketa

ala depresio ziklikoa?

"Mendebaldar ekonomia hozten dabil", "Datu berriek ekonomiaren hozketa baieztatzen dute", "Ekonomiaren hozketa espero baino sakonagoa eta luzeagoa izango da"... Hauek bezalakoak eta antzeko berriak gaude irakurtzen aspalditik. Hasieratik esan izan da munduko ekonomiaren hozketa hau EEBBetako ekonomiaren beheraldiak bultzatuta dagoela (edo hozketak bultzatuta, hobeto esanda, zeren jeisten dena hazkunde tasa baita, ez ekoizpen globala). Eta kitto. Ez da gehiagorik esaten beheraldi-hozketa hau eragiten duten arrazoiei buruz. Badirudi "esku beltz"-en bat badabilela lanpostuak, eskaera, eskaintza, ekonomia orokorrean, izorratzen.

Baina ez. Neoliberalismoak bere ideologia inposatu duen garaian bizi gara eta, aldez edo moldez, guztiok kutsaturik gaude, hala eskuindarrak, noski, nola ezkertiarak. Ea azaltzen naizen: gaur modan dago Marxen teoria errefusatzea. Marxista izatea, azterketa ekonomikoak egiteko marxismoa erabiltzea "errealitate kanpo dago", edozein ikuspuntutik ere. Hau esaten da inolako lotsarik gabe. Eta eskuinatik, zer esanik ez.

Baina gustokoa izan ala ez, Marx zuzen zebilen: Kapitalismoaren munduan hazkunde ekonomikoak ezin du luzaroan iraun, zeren, berandu baino lehen, kapitalaren mozkin-tasa behe-



rantz hasten baita. Eta hau gertatzen denean, kapitalistek, enpresek, ekoizpena murrizten eta langileak kaleratzen dituzte. Guzti hau ekidiezina da, Marx-ek esango lukeen bezala, "Mozkin-tasa beherakorraren legea" baita.

Horrela hasten da beheraldi edo depresio ekonomiko: langabezia bizkortuz, ekoizpena jaitsiz etab. Apurka apurka mozkin-tasa berreskuratuz doaz eta berriro hasten dira enpresarioak ekoizpena igotzen -goraldi ekonomiko- Fase hauek luzeak zein laburrak izan daitezke eta "ziklo ekonomikoaren faseak" deitzen dira. Fase luze batean, bai goranzkoan bai beheranzkoan, epe laburreko bestelako faseak ere badaude txandaka, hauek ere goranzkoak eta beheranzkoak.

Ekonomiak gaur egun jasaten duen krisia orain direla hiru urte gutxi gorabehera hasi zen. Mozkin-tasa behera zihoan epe luzeran, ekoizpena eta enplegua bezalaxe, baina ziklo laburrek dexente izkutatzen zituzten beherakada hauek. Komunikabideetan inork ez zuen aipatzen ziklo ekonomikoak, krisia etab. Gorabehera ekonomikoak iragankortzat hartzen ziren. Horrelaxe egon gara azken urteotan, baina gaur egun ziklo laburren goraldiek ezin dute izkutatu gero ta handiagoa den mozkin-tasaren beherakada. Egoera ekonomiko larriagotzen dabil, EEBBetako, Alemaniako, Frantziako ekonomiak desazelerazio prozesuan sartuta daude, Kanadakoa jadanik beheraldi orokorrean sartua da eta Japoniakoa "lur jota dabil". Hau guzti hau dela eta, Nazioarteko Moneta Fondoak, aurtengo irailean garapen aurreikuspen guztiak

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa - 1go seihiakoa

azpitik berrikusiko ditu eta desazelerazioa espero baino luzeagoa izango dela dio.

Itxura guztien arabera, beheraldi-errezesiotik hurbil gaude. Eta honek aurreikusita egon behar zuen, zeren Sistema Kapitalistaren ezaugarri saihestezinetako bat baita. Hala ere, zentzu honetan ez da ezer egiten. Zergatik? Neoliberalismoak bere ideologia inposatzen duela-ko.

Ikus dezagun zer gertatzen den benetan: Kapitalistek mozkin-tasarako gutxieneko maila finkatzen dute. Benetako mozkin-tasa maila honetara heltzen ez denean, igotzen saiatzen dira. Honetarako kostuak jeisten dituzte. Ze kostuak? Lan kostuak, noski. Eta langileak kaleratzen hasten dira. Neoliberalismoak zera baieztatzen du: "Merkatuak agintzen du eta orain Merkatuak dio langile gehiegi dagoela. Beraz, guztion onerako, enplegua jaitsi behar dugu", Jaungoikoak berak esan balu bezala. Hori aspalditik ikusten gabilta: enpresa handiak, multinazionalak ari dira milaka ta milaka langile kaleratzen, lantegiak ixten, lan-baldintzak ahultzen, soldatak eta sariak galgatzten (edo egiazko soldatak jeisten). Eta enpresarioek erabiltzen duten argudioa lotsagarria da: "mozkin-tasa baxua denez, langileak kaleratu behar dira", hots, nahiz eta mozkinak izan, gehiago irabazi nahi dutenez, langileak miseria gorrian utzi behar.

Kupidagabeko basakeria hauek ez dira delitutzat hartzen inongo lekutan. "Benetako demokrazia batean, Merkatua eta elkarlehia aske dira (gezur galanta, monopolioak dira nagusi eta beraz, Merkatua ez da ez aske, ez demokratikoa), eta ekonomian Merkatuaren Legeak agintzen du". Hori dio Neoliberalismoak. Hauxe bai dela "Kapitalismo salbaje-basatia" eta ez lehenengo kapitalismoa! kaleratze masiboak, gero eta zabor kontratu gehiago, soldata miserabileak... dena demokraziaren ize-nean.

Kapitalismoak bere baitan daramatza langabezia, kaleratzeak, bidegabeke-ria-injustizia... Baina neoliberalistek (eskuindarrak eta sasi-sozialistak edota sozialdemokratak –denak berdina-) ezin dute onartu euren sistemaren ezaugarri nazkagarri eta ukaezin hau. Merkatuaren Legea da eta Merkatua Askatasunak, Demokraziak sortu zuten guztion onerako.

Oker ez bagaude, Depresioan, Beheraldian sartzen ari gara eta epe luzerako (bitartean, epe laburreko goraldiak emango dira). Hau gertatzen bada, luzez egongo gara –gaude- etengabe pairatzen Kapitalaren, enpresarioen basakeriak. Prest egon behar dugu Sistemari dagozkion erantzunak emateko. Eta bada ordua giza aldaketa lortzeko bidean koka gaitezten. Indarra, gogoa, borroka ideologikoa eta indar metaketa egin eta bultzatu beharko dugu.


2. EEBBetan gertaturikoa

eta krisi ekonomikoa

EEBBetan joan den irailean gertaturiko sarraskia baino lehen, gure azterketan esan dugunez, munduko ekonomia, EEBBekoak bultzatuta, depresioan sartzeko zorian zegoen -lurralde batzuetan desazelerazioan, beste batzuetan atzeraldian eta Japonian, adibidez, "lur jota"-. Orain, komunikabideetan, zuzen ala zeharka, krisi ekonomikoari buruz berba egiteko orduan, EEBBetan gertaturikoa aldagaitzat hartzen da. Behin baino gehiagotan hondamen aurrikuspenak entzun eta irakurri ditugu. Sarraskia gertatu ez balitz, munduko ekonomia atzeraldi orokor batean sartu eta gero -gehien jota, urte bi igaro ondoren- berriro zuzperraldian zegoen.

Baina orain, munduko ekonomiak jasan duen "shock"-ak kontsumoa, eskaria, alegia, ahulduko du eta kostuak (energia, aseguruak, gutxienez) igoko ditu, hots, eskaintza eroriko da. Nazioarteko mailan turismoa jaitsiko da eta garraioetan harturiko neurriak direla eta, nazioarteko merkataritza ere bai. Ez dugu ahaztu behar finantza sektorean gertatzen ari den hondamendia eta enpresa askok (aseguruak, higiezin-etxeak, hegazkintzakoak...) bilioika eta bilioika jasaten dituzten galera izugarriak.

Galeren berreraikuntzak zuzperraldian bideratzea suposatzen arren, balite-



ke hau luzarorako izatea. Aginte ekonomikoek (Europar Banku Zentralak, Erreserba Federalak) talka-neurriak hartu zituzten (monetarioak batez ere). Baina itzaropide ekonomikoak negatiboak direnean eta kontsumitzaileak mesfidantzaz beteta daudenean, Moneta-Politikak harturiko neurriak eragingarritasun txikikoak izaten dira.

Orain Moneta-Politika baino zer edo zer gehiago behar du ekonomiak, neurri zuzenagoak, eragingarriagoak. Neoliberalismoak Gastu Publikoa ez ikutzea agintzen du, "defizit zero" po-

litikaren arabera. Baina gustokoa izan ala ez, hemendik aurrera Gastu Publikoa hedakorra erabili behar da.

Kapitala basatia baino bastiagoa da beti, bere adierazpen guztietan. Historian zehar, munduko ekonomia krisi larrian egon denean, ia beti, guda sortu ohi da. Itxura guztien arabera III. Mundu Gerra hastear dago tamalez. Gasto militarrek ekonomiarako hedakorrak izango dira. Baina gastu militarrek baino gehiago beharko du ekonomiak krisia ekiditeko, "defizit zero" politika ahaztu, hain zuzen ere. Keynes handia

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa - 1go seihilekoa

beharko dugu: berak zioen "krisia handia, sakona denean, Gastu Publikoa handitu behar da lana eta enplegu sortzeko. Beharrezkoa balitz, langileek zuloak egin eta gero bete ditzatela. Inportanteena da lana, enplegua". Holako gauzak esateagatik Neoliberalistek beti gorroto izan diote Keynesi.

Baina momentuz, Kapitalismoak gerturiko sarraskia profitatzen du: hortxe dauzkagu aseguru-enpresak, hegazkintzakoak, aereoak, milaka ta milaka langile kaleratzen, EEBBetan ez ezik, Europan ere bai. Eta datorkigun gudan armamendu sektorea izango da onurarik handiena aterako duena.

Bai sarraski izugarria datorkiguna! Hirugarren munduan gertatuko da batez ere, hildakoak, miseria, gosea, nonahi. EEBBek lortuko dute behin betirako mundu osoko agintaritza eta ideologia atzerakoiagoa zabalduko eta inposatuko da mundu osoan. Autodetermina-

zioa eta disidentzia defendatzen dutenak, "pentsamendu bakarra" onartzen ez dutenak gaitzestiak, anatematizatuak izango dira. Guda ez da izango "estatu batzuen aurkakoa" baizik eta luzaroan, apurka apurka, euren burua askatu nahi duten herrien aurkakoa.



3. Hamar kontratutatik, bederatzi dira aldi baterakoak

Urte honen hasieratik abuztura arte (abuztua barne) Arabako, Bizkaiko, Nafarroa Garaiko eta Gipuzkoako INEMen bulegoek 585.643 lan-kontratu erregistratu zituzten. Honek, kontratazioaren %1,8ko hazkundera suposatu du; hala ere, kontratazioan aldikotasun tasak neurrigabeko mailetan dirau.

Kontratuen %8,8 baino ez ziren mugagabeak eta, betidanik behin-behinekotasun edo prekarietate gehien jasaten duten taldeei dagokienez, mugagabeen ehunekoak %7,7ra jeisten da emakumeetan eta %6ra gazteetan.

Datu hauek PPren gobernuak egindako lan-erreformen porrota agerian uzten dute, enplegu egonkortasunaren ikuspuntutik, behintzat; nahiz eta izkutuko azken helburua, ugazaberiak eskatzen duen bezala, lan-malgotasuna handitzea den, enplegu-kalitatea murriztuz.

Aurtengo erreformak 97ko maiatzean onartu ziren neurri malgutzatzaileak, CCOO eta UGT sindikatuen adostasunarekin (eta orain aldikotasunaren aurkako daukaten ezeraginkortasuna salatzen dute), areagotzen eta okertzen jarraitzen du. Honela, hasieratik kalera zirean aurkako bermeak gutxitzen zituen mugagabeko lan-kontratu berri baten sorketa onartzen ez genuenoi arrazoia ematen digute. Honek guzti honek mugagabe arruntak bazterreko



lekua betetzea eragin du: sinaturiko kontratuen %2 baino apur bat gehiago.

Bestaldetik, mugagabeko lan-kontratuen %17 aldi partzialekoak dira eta %36 mugagabe bihurtuak; honek zera esan nahi du: ugazaberia, Gizarte Segurantzak emandako gainsari mardulez baliatzen dela gezurrezko aldi baterako lan-kontratuak mugagabe bihurtzeko, zeren, hasieratik, mugagabe izaera daukaten lanpostuak betetzeko erabiltzen baitira.

Enpresarioek gizonak kontratatzea hobesten dutela agerian geratu da beste behin ere: aurtengozko diren kontratuen erdia baino gehiago gizonekin egin zen (%53,3) nahiz eta lan barik dauden emakumeak, langabezian dagoen biztanleriaren %63 izan.

Kontratazio ereduei dagokienez, ekoizpen-gorabeherengatik kontratuak dira nagusi (%31,2) eta hauetatik, %57k ez dira hilabete baino luzeagoak. Jarraian daude, garrantziari dagokionez, obra edo zerbitzu deritzonak

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa - 1go seihilekoa


(%27,5) eta geroago, lanaldi partzialekoak (%19,7).

Gaur egungo eredu ekonomikoak emakumeei ematen dien rola argitzeko baliogarria den beste datu bat hau da: hauek dira denbora partzialeko lan kontratu gehien betetzen dituztenak (%71,3).

Agerian dago etxea eta lana errezago bateratzeko jartzen diren neurriak euskarri direla emakumeak eurakizan daitezten etxeko lana eta etxetik at egindakoa bateratu behar dituztenak. Gainera, behin-behineko kontratazio

mota hau da, lan bereizkeriaren beste elementu batzuekin batera, emakumeek gizonak irabazten dutena baino heren bat gutxiago gutxi gorabehera kobratzeko zergatia.

Azkenik, behin-behinekotasuna, prekaritateaz berba egiteko orduan, beste faktore bat kontuan hartu behar dugu: lan biraketa, errotaioa, lan kontratuen iraupen laburrak eraginda. Denbora jakineko aldi baterako kontratuen %1ek dauka urte bat baino gehiagoko iraupena eta %76k ez du gainditzen hiru hilabetekoa.




4. Lan merkatuaren

egoera

2001eko bigarren hiruhilekoari dago-kion Biztanleria Aktiboaren Inkestan 1.030.700 landun kontabilizatu ziren Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan, horrek aurreko hiruhilean baino 13.500 landun gehiago daudela esan nahi du. Hazkunde hau honela nabaritu da Hegoaldean: Araban (+5.400), Gipuzkoan (+5.200), Bizkaian (2.800), Nafarroa Garaian langileen kopuruak berdin berdin jarraitzen duen bitartean.

Bigarren hiruhileko honetan enpleguaren berreskurapenak, aurrekoan galdu ziren lanpostuak (-6.900) berreskuratzea baimendu du eta 2001eko lehenengo urterdian izandako enplegu garbiaren hazkundera 6.600 lanpostu izan dira; hots, iaz sasoi berdinean sorturiko enpleguaren bostena.

Beraz, iazko urterditik gertatu den enpleguaren bilakaerak deskribatzen duen joera txarra aldatu dela pentsatzea ameskeria hutsa litzateke. Egitez, geldiaogtze ekonomikoak (kontsumoan eta esportazioetan eragina duena), jadanik enpleguaren desazelerazio gogorra eragin du. Jarraikako hotzaldi baten ezaugarriak gero eta larriagoak dira eta atzeraldi baten arriskuak gero eta handiagoak.



Beti bezala, lantalde murrizketen ondorioz sektorerik kolpatuena gazteria izan da, zeren sei hilabetetan 25 urte baino gutxiagoko langileen artean 5.200 enplegu desagertu baitira.

Bestalde, enpleguak izan duen hazkunde ahul eta eskasaz gehien profita-tu direnak gizonak dira, zeren urterdi honetan sortu diren enplegu garbien %56 haiei baitagozkie.

Emakumeen kasuan, langabetuen kopurua jaitsi da (-10.400), baina gehiengo handi batek ez dio langabetua izateari uzten enplegu bat aurkitu izanagatik, baizik eta lan-merkatutik kanpo geratu direlako, 7.600 emakumek lanpostu bat bilatzeari uko egiten diote espektatibarik eza ikusi ondoren. Lan Merkatutik aterata, biztanleria inaktiboan sartzen dira.

Araba - Bizkaia - Gipuzkoa Nafarroa Garaia	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GAZTEAK
Landunak	1.030.700	396.500	634.200	105.400
Langabetuak	114.600	71.100	43.500	29.900
Langabezi tasa	%10	%15,2	%6,4	%22,1
Enplegu tasa	%46,8	%34,6	%59,9	%34,4
Jarduera tasa	%52	%40,8	%64,1	%44,1
Aldikotasun tasa	%29,7	%35,6	%25,8	%69,1

Iturria: BAI (EPA), 2001ko 2.hiruhilekoa

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa - 1go seihilekoa



Hego Euskal Herria osoan, langabezi-tasa, %10 da, Europar Batasuneko (%7,6) baino handiagoa; baina gazte-riari bagagozkio, langabezi tasak bikoitzen dira (Hegoaldean %22,1, Europar Batasunean, %15,1).

Langabezian dagoen biztanleria aktiboaren %62 emakumeak dira, eta %15,2 langabezian daude. Gizonetan langabezi-tasa askoz txikiagoa da, %6,4.

Beste datu kezkagarri bat da epe luze-ko langabeziaren batezbestekoa. Langabetutzat hartzen diren pertsonen %54k urte bat baino gehiago daramate lan bila inolako arrakasta barik (60.900 pertsona) eta %37,7k egoera berdinean bi urteko epea gainditu du.

Gizarte Segurantzari enpresari- egiten dioten iruzurra eta langabe- zi prestazioen murrizketa.

PPren Gobernuak -kontu publikoetan aurrezteaz kezkatuago, lagileriaren ezkubideez baino- "*langabezi-
raguntza kontsolidatzeko eta babesteko
prozesu bat*" iragarri du. Hitz potolo hauek eta antzekoak sarri askotan erabiltzen dira errealtatean giza laguntzak murrizteko.

Enplegu Idazkari Orokorra den Juan Chozas-ek, prestazioek sortaraziko gastu hazkundera bi arrazoik bultzatuta dagoela onartzen du: (1) aldikotasunak eraginda Lan Merkatuan dagoen errota altua, eta (2) ugazaberiak egiten duen iruzurra, hau da, oporrak hasterakoan kontratuak bertan behe-

ra utzi eta amaitu ondoren berriro indarrean ipini eta, honela, Gizarte Segurantza kuotak saihestu.

Jardunbide hau asteburuetara ere hedatzen dago era kaltegarrian eta, kotizazio hutsune hauen ondorioz, Gizarte Segurantzaren sarrerak murrizteaz gain, langileei kalte handia egiten zaie, sarritan haiek jakinaren gainean egon barik.

Lan Ikuskaritzak, Estatu Espainarrean iruzur hau praktikatzen duten 80.000 enpresa baino gehiago identifikatu zituen, batez ere eraikuntza arloan. Honen ondorioz, lan egindako hilabete batek kotizazio errealeko 22 egun baino ez dauzka. Beraz, langile batek, baldintza hauekin 15 urte lan egin ondoren (oinarri erregulatzaileraren %50eko pentsio zergadun bat jasotzeko eskatzen den gutxiengoa) kotizazio errealeko 11 urte baino ez luke bilduko.

Lan Ministeritzak, hauek bezalako iruzurren aurkako neurriak jadanik iragarri ditu, eta datorren urtearen hasieran indarrean egon daitezkeen asmoak dauka; baina kezkagarria da langabezia aseguru honen erreformaz aprobetxatuko dela prestazioak izateko baldintzak gogortzeko, eta hau aspalditik dabil ugazaberia etengabe eskatzen.

2000 urtean, langabetuen %21,5ek besterik ez zituen jaso izaera zergadun dituzten prestazioak eta %15ek langungarriak, beraz, hiru pertsonatik,

bik ez duze INEMetik inolako sarrera motarik. Emakumei bagagozkie, langabeziagatik estalpen-tasa txikiagoa da: lau emakumetik bakar batek jasotzen ditu INEMek emandako laguntzak.

Bien bitartean, aldikotasunari eta lan-errotazioari aurre egin beharrean, Madriletik Lan Merkatuan malgutasun handiagoa eragiten duten erreformak indarrean ipintzeari ekiten diote.

Aldikotasun tasak maila berdinetan dirau.

Soldatapeko biztanleriaren %29,7k aldi baterako kontratuzko harremana dauka, baina gazteetan aldikotasun tasa %69 baino altuagoa da. Emakumetean, aldikotasunak soldatapeko %35,6ri eragiten dio, besteren kontura

lan egiten duten gizonen artekoa baino ia hamar puntu gehiago (%25,8).

Aldi baterako lana daukatenez segurtasun eza eta etengabeko xantaia jasateaz gain, behin-behineko lan harremanek beste kalte batzuk sortarazten dizkiete.


Alde batetik, langabezi laguntzak jasotzeko beharrezkoa den kotizazioepea betetzeko zailtasuna; eta bestetik, esan gabe doa etengabe enpleguz aldatzen egoteak behar den eskarmentua hartzea eragozten duela eta lan-istripuak ugariagoak direla.

Aurtengo urtarril-abuztu bitarte honetan, lan-bajaz ia-ia 50.000 lan-istripu gertatu dira. Honek, egunero, batez beste, 206 lan-istripu suposatzen ditu,

haietariko bi, ondorio larritz. Baina mingarriena hauxe da: lan-istripuek eraginda, 82 pertsona hil direla.

Egiazta daitekeena zera da: mugagabeko kontratu bat daukaten soldatapekoen arteko lan-istripuen tasa %55,2 da eta kontratua aldi baterakoa bada %123. Beraz, aldikotasunaz lan-istripu bat izateko posibilitatea 2,2 bider handiagoa da.

Baina ugazaberia ez ditu kontuan hartzen "kalte kolateralak" deritzonak eta Adegiren bidez, Madrilren erreforma berri bat eskatzen du "enpresei malgutasun handiagoa emango diena". Lan-kalitatea eta lan-segurtasuna kalteuak aterako dira, baina errazago izango da lan-taldeak egokitzea kale-ratze masiboak erabiliz.



2001eko egoera ekonomikoaren azterketa - 1go seihilekoa

5. Emakumea

eta soldata bereizkeria 2000 urtean

Industria eta Zerbitzu sektoreetan egindako inkestaren arabera (INE), pertsona batek hileko batezbesteko soldata-irabazia 2000 urtearen laugarren hiruhileko bitartean 268.229 pezetakoa izan zen Nafarroan eta 303.389 pezetakoa EAEan. Soldata hauek, 1999 laugarren hiruhilekoekin parekatzen baditugu zera ondorioztatzen dugu: batezbesteko soldata-hazkundera Nafarroan %0,71 eta EAEan %1,07 izan zela.

Baina, ezer baino lehen, azpimarratu behar da irabazi hauek soldatatzat jotzen diren ordainketa guztiak hartzen dituztela kontuan, eskudirutan edo gauzez ordaindutakoak eta aparteko orduak barne eta, gainera, termino gordinetan adierazten direla (atxiki-penak eta Gizarte Segurantzari egindako ordainketak kendu barik).

Komeni da INE deritzonak argitaraturiko soldata-irabaziak "hanpatuta" edo "puztuta" agertzen direla, zeren inkesta egiteko orduan, bost langile baino gutxiagoko lantegietako datuak hartzen ez baitira. Honek, makurdura garrantzitsu bat sartzea suposatzen du, zeren Hego Euskal Herrian, pertsona landunen %32k bost langile baino gutxiago dituen lantegietan lan egiten baitute eta, jakina, lantegi txikiko ordainketak apalagoak dira, nabarmenki.

Edozein kasutan, emakume eta gizon langileen batezbesteko irabazien arteko desberdintasun nabarmena azpimarratu nahi dugu. Nafarroan emakume langile batek, batez beste, hilean, gizon langile batek jasotzen duenaren %33,2 gutxiago kobratzen du eta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, %32,3 gutxiago.

Oradainsari-desberdintasun hauek, soldata bereizkeriak eraginda, goraka dabilta. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, gizonen eta emakumeen arteko soldata-zulogunea azken hamabi hiletan 4,4 puntu handitu da, zeren 1999ko laugarren hiruhilekoan emakumeek gizonen baino %27,9 gutxiago kobratzen zuten eta gaur %33,2 gutxia-



¹ Ez dira kontuan hartzen indemnitzazioak eta dietak.

² Frantses Estatuko Estatistika Institutua.

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa - 1go seihiilekoa

go jasotzen baitute. Nafarroan, zulo-gunea puntu bat baino gutxiago hazi da (0,9).

Iparraldeari dagokionez, ez daukagu datu zehatzik, baina INSSE erakundeak orain dela gutxi egindako azterketa baten arabera, Frantzes Estatuan ere, emakumeen eta gizonen arteko soldata desberdintasunak gora jo dute. Aipaturiko azterketa honek, arlo pribatuko soldaten garapena dauka oinarri eta hortik zera ondorioztatzen da: 90eko hamarkadaren hasieran, gizonen eta emakumeen hileko soldata gordinen arteko desberdintasuna;

lan-historiaren lehendabiziko bost urteetan %22,2koa zen, 70eko hamarkadan %14koa zen bitartean.

Soldata desberdintasun hauek eragiten dituzten faktoreen artean emakumeei kontratu bat eskeintzeko orduan, egiten zaien bereizkeria dago. Emakumeak kontraturik prekarioenen jasotzaileak dira, batez ere etxe-bizitza eta lan-bizitza bateratzeko eskaintzen zaizkien aldi partzialeko kontratuak.

Horrela, emakume langileak, laneguna bikoitza eta sarri askotan ekonomi independentzia lortzeko balioarriak

ez diren soldatak jasatera behartzen dituzte. Hala eta guztiz, egoera hau eragiten duten beste arrazoi batzuk badira: zereginetako bereizkeria edo bereizkeria okupazionala. Honela azaltzen da: emakumeentzat dira batez ere kualifikazio gutxieneko lanpostuak, eta, nahiz eta lanbide-maila berbera izan, gutxiago kobratzeak suposatzen duen bereizkeria.

Baina kontua da, soldata bereizkeriak bestelako arazo bat dakarrela berarekin batera: soldata txiki horiei erretiro-pentsio bajuagoak dagozkie.

HILEKO BATEZBESTEKO SARRERA. GUZTIZKO ORDAINKETAK.

2000ko laugarren hiruhilekoa	Batez-bestekoa	Gizonak	Emakumeak	Ratio*
Nafarroa	268.229	294.189	196.483	66,8
Araba-Bizkaia-Gipuzkoa	303.389	332.440	225.174	67,7
1999ko laugarren hiruhilekoa	Batez-bestekoa	Gizonak	Emakumeak	Ratio*
Nafarroa	266.329	289.006	195.560	67,7
Araba-Bizkaia-Gipuzkoa	300.166	322.222	232.367	72,1

* Ratio (emakumeak/gizonak) ehunekoetan ipinak dira.

HILEKO BATEZBESTEKO SARRERAREN ALDAKETA. GUZTIZKO ORDAINKETAK.

Laugarren hiruhilekoa (1999-00)	Batez-bestekoa	Gizonak	Emakumeak	Ratio*
Nafarroa	%0,71	%1,79	%0,47	-0,9
Araba-Bizkaia-Gipuzkoa	%1,07	%3,17	%-3,10	-4,4

* Ratioen arteko desberdintasuna.